

IRUÑEKO EMAKUMEZKO APEZPIKUA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Iruñea, 1082. Antso V.a Ramirez (1043-1094) Iruñeko erregeak hiriko apezpikua aldatzea erabaki zuen. Ordura arte bere anaia Gartziak zeukan goi-kargua eta Antso V.ak –edo Antso I.a Aragoikoak, hango errege ere baitzen– beste senitarteko baten esku utzi zuen gotzaingoa. Horraino ezer harrigarrik ez; garai hartan errege-erreginek apezpikuak izendatzeko eskumena zeukaten eta nepotismoa ere, jakina, ez zen kontu berria. Baina erregeak, lege kanonikoaren aurka, emakume bat izendatu zuen Iruñeko apezpiku: Antsa arreba. Urte hartako diploma batean idatzita jaso zenez: *in sede episcopale Iruniensis comitissa domna Sancia in commendatione*.

Antsa Ramirez 1045ean jaio zen eta 1097an hil. 18 urte zituela Ermengol II.a Urgeleko kondearekin ezkontarazi zuten, familiaren aliantza estrategiak medio. Senarra handik bi urtera hil zen, Zaragozako taifako Al-Muqtadir erregearen aurka borrokan. 20 urterekin alargunduta, senarraren titulua hartu eta Huescako Santa Cruz de la Serós emakumeen monasterioaren ardura hartu zuen. Antso nebaren gortera hurbilduz joan zen eta 1071. urte ingurutik aurrera bere izena nebarenaren ondoan agertzen da dokumentazio ofizialean; gerora, iloba Pedro I.a Aragoikoarenaren agirietan ere



OSCAR GARCES OLASAGARRE

Antsakondesarensarkofagoa, Jacakobeneditarren komentuan. Eskuineko eszenan, erdialdeandagoen emakumea Antsa beradelausteduteadituek, artazi-aulkibatean eserita dagoelako eta eserleku horiek garai hartan errege familiarekiko lotura adierazten zutelako.

Antsa aipatzen jarraituko zuten. Konde-saren itzal handiaren seinale da, baita ere, erregeak hainbat monasterioen eta haiei lotutako lurraldeen ardura haren esku utzi izana: Santa Cruz de Serós bera, San Urbez 1074tik, San Pedro de Siresa 1082tik, Atares 1083tik...

Esan bezala, 1082an Antso V.ak Iruñeko gotzain izendatu zuen Antsa, ziurrenik Gartzia anaiarekin zituen desadostasunen ondorioz. Gartzia apezpikua garai hartan Iruñean praktikatzen zen erritu mozarabearen aldekoa zen. Aldiz, Antso, arreba bezala, erromatar errituaren babesle sutsua zen, 1068an Aita Santuari bisita egin zionetik. Hala, erritu moza-

bea ordezkatzeko jarri zuen Antsa postuan. Alegia, aita santuarekiko leialtasunak generoak baino pisu handiagoa izan zuen une hartan.

Antsa Ramirezek hurrengo urtean, 1083an, utzi zuen gotzaingoa, ezagutzen ez diren arrazoiengatik. Baina San Pedro de Siresako gizonetzkoen monasterioaren ardurari eutsi zion 1095 arte, lege kanonikoari muzin eginez.

2015eko urtarrilean Elizabeth Jane Holden eliza anglikanoko gotzain izendatu zuten. Historiako lehen emakumezko apezpikutzat jotzen dute askok, duela ia mila urte, askoz gertuago, Antsak eliza katolikoan titulu bera izan zuela ahaztuta. ⁿ



Amelia Earhart, Nikumaroro uhartean naufrago

Amelia Earhart abiazioko aitzindaria 1937an galdu zen Ozeano Barean, munduari bira emateko ahaleginean. Handik urte batzuetara Nikumaroro uhartean giza eskeleto bat aurkitu zuten, baina Earhartena ez zela esan zuten, besteak beste humero luzeek gizonetzko batena zela adierazten omen zutelako. Orain, TIGHAR arkeologia aeronautikoko fundazioak hezur horien ikerlana berraz-

tertu –hezurak eurak aspaldi galdu baitziren– eta emakume kaukasoar batena, beraz, Earhartena izan daitezkeela jakinarazi du. Beso luzeek, hipotesia baztertu ez ezik, indartu egiten dute, hegazkinlaria gorputz adar luzekoa baitzen, ezkerreko argazkian antzeman daitekeenez. Gainera, kremailera zati bat, botoiak eta Ameliaren neurriko zapata bat ere aurkitu zituzten uhartean. ⁿ